

2016-05-31ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko maiatzaren 31n, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar (Iana zeukala adierazi du).

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA (2016-04-26).

Idazkariak adierazi du 2016ko apirilaren 26ko bilkuraren akta oraindik ez dagoela amaituta.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du beti bezala ostiralean iritsi zaiela dokumentazioa eta ez daudela ados, ez daukatelako denborarik gaiak ondo aztertzeko eta berriz eskatu du lehenago bidaltzeko, asteburuan daukatelako bakarrik denbora gaiak aztertzeko eta haiek ere gaiak ondo lantzea nahi dutelako. Gainera, udalbatza egiteko eguna beti berdina da.

Idazkariak adierazi du hori egia dela, baina askotan udalbatzako gaiak azkeneko momentuan prestatzen direla.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du hark ostiralean eguerdiko azken orduan jaso zuela deialdia, lanean zegoela, eta bakarrik astelehenean

eta asteartean denbora daukala gaiak aztertzeke, eta gauza bera hainbat aldiz errepikatzea seinale txarra dela.

Ana Jesús Leunda alkateak erantzun du legeak ezartzen duela dokumentazioa bi egun aurretik bidali behar dela, eta hori betetzen dela eta ez dela bidali aurretik beste arazo bat eduki delako.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun du badakiela legea betetzen dela, baina ostiralean bidaltzeak denbora gutxi ematen duela gaiak aztertzeke, eta berriz eskatu dute dokumentazioa lehenago bidaltzea, edo behintzat prest dagoen dokumentazioa.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/78tik eta 2016/105era DEKRETU BITARTEAN.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 78. zenbakitik 2016ko 105. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Honako eztabaida hau izan da:

Ane Jesús Leunda alkateak adierazi du dekretu bat pil-pilean dagoela (91/16, 2016ko maiatzaren 10ekoa): guraso talde batek 300 sinadura aurkeztu ditu, herriko plazako parkea estaltzea eskatzeko. Ogasun-batzordean, horri buruzko eztabaida izan zuten, eta udal-gobernuak adierazi zuen beheko parkea aurten estaliko zela, plazako parkearen espazioa aztertu behar dela, datorren urtean ikastolak orain erabiltzen dituen eraikinak utziko dituelako eta hura izango delako azterketa hori egiteko momentua. Herriko beheko partean ez dago leku estalirik, eta bai plaza inguruan, elizako ataria, trinketea, txiki-park eta frontoia. Gainera, egia da ere udal-gobernuak inoiz ez duela esan plazako parkea ez duela estaliko, eta hori argi geratu behar da. Horrez gain, beste udal-taldeari galdetu dio goiko parkea estaltzeko beharra orain ikusten duten. Izan ere, azken lau urteak izan dituzte obra hori egiteko.

Olaia Nieto zinegotziak erantzun dio alkateak gaiak nahasten ari direla, gauza bat dela gurasoen eskaera eta beste gauza bat udal-taldearen aukera.

Alkateak ihardetsi dio eskaera udal-taldeari zuzentzen zaiola, eta haiek ere gurasoen taldean sartuta daudela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak esan dio argi dagoela haren hauteskunde-programan proposatzen zutela goiko parkea estaltzea. Haren kezka handiena da beheko parkean jende gutxiago ibiltzen dela, eta horrenbeste diru erabiltzea bospasei ume ibiltzen direnean, dirua botatzea dela. Beharrezkoa dena egin behar da, eta gauza bat da eraikinak aztertzea eta beste gauza, berriz, parkea estaltzea. Parkea estaliko beharko litzateke, eta gero ikusiko dute eraikinaren helburua.

Olaia Nieto zinegotziak itaundu du Irura bezalako herri txiki batek bi parke estali behar dituen eta ea ezinezkoa den itzarotea sei edo zazpi hilabete.

Jesús Maria Alonso zinegotziak erantzun dio pentsatu behar dela ere beheko partean, ibai ondoan, ez dagoela gune estalirik, eta badaudela adin-tarte jakineko zenbait ume parke hori erabiltzeko eskubidea dutela. Bestalde, aurreko gobernuari ongi iruditu zitzaiola harraska ondoan parke bat egitea, eta hortxe dutela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi dio parke horietan gazteak ibiltzen zirela eta eskaerak ere egon zirela.

Jesús María Alonso zinegotziak erantzun dio haiek ere beheko parkea egiteko beharra ikusi zutela, eta programan jarri dutela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio EAJk lau urte pasatu dituela esaten aurreko HBko aurreneko udalak inposatu besterik ez zuela egiten eta orain EAJk iritziz aldatu eta haiek ere inposatzen hasi diren.

Ana Jesús Leunda alkateak erantzun dio EAJ bere programa betetzen ari dela bakarrik.

Hartara, Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio inposizio hori non zegoen, azkenean EH Bilduk gauza bera egin baitzuen, hau da, haren programa bete.

Alkateak itaundu dio noiz esan duen inposizio hitza, eta esan dio beste gai batean izango zela hori.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu dio EAJri Bilduk haren programa betetzea inposizioa zen eta orain EAJk gauza bera egitea inposizioa ez den, haien programa betetzea baizik. Ildo horretatik, EAJk ere herritarren artean sinadurak jaso zituen eta herriak eskatutakoa egin behar zela adierazi, eta itaundu dio orain, beste sinadura batzuk jasota, ez den herriak eskatzen duena egin behar. Galdetu dio noiz egin behar zaien kasu herritarrei, eta horiek nor izan kontuan hartuta jaramon egin behar zaien.

Alkateak galdetu dio haiek herritarrei kasu egin zieten.

Jose Ignacio Imaz ihardetsi dio ez zietela kasu egin, beste gauza garrantzitsuak zeudelako jokoan (osasuna, adibidez); baina EAJk aurretiaz esandakoari jarraitzen badiogu, orain herritarrei kasu egin behar zaie.

Amaitzeko, Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du Bildu udal-taldeak ez diola Dekretu horri babesik emango.

HIRUGARREN GAIA

EUDELEN 2015eko AZAROAREN 11ko PROPOSAMENA ONARTZEA, LANGILE PUBLIKOEN LAN BALDINTZEI BURUZKOA, HALA BADAGOKIO.

Eudelek gomendio bat Por parte de Eudel se presenta una aurkeztu du 2016rako, Udal honetako recomendación en materia de regulación

langileen lan-baldintzen erregulazioari dagokionez. Hona hemen:

de las condiciones de trabajo del personal de este Ayuntamiento para 2016, que básicamente es la siguiente:

A) Ekonomikoak:

1.- Modernizazio eta Ekoizpen Funtza gaitzea.
Oinarrizko ordainsarien eta ordainsari gehigarrien soldata-masaren % 0,6, 2016ko ekitaldian egikari daitezten.

(Irurako Udalean 4.000 eurokoa da.)

2.- 2012ko ordainsari estra berreskuratzea.

Udal honetako langile publikoei aurreko ekitaldietan osorik itzuli zaie.

3.- Langileen ordainsariak % 1 igotzea 2016ko ekitaldirako.

Alkatearen Dekretuaren arabera egin da. 2016rako Estatuko Aurrekontu Orokorrek ontzat eman dute kontzeptu hori.

B) De carácter económico:

1.-Habilitación Fondo de Modernización y Productividad.
0,6% de la masa salarial de las retribuciones básicas y complementarias, a fin de que se ejecute dentro del ejercicio de 2016.

(En este Ayuntamiento de Irura supone una cantidad de 4.000 euros.)

2.-Recuperación de la paga extraordinaria de 2012.

Se ha procedido a su reintegro completo a los empleados públicos de este Ayuntamiento en los ejercicios anteriores.

3.-Incremento retributivo del 1% para el ejercicio de 2016 de las retribuciones del personal.

Se ha efectuado de acuerdo con Decreto de Alcaldía. Este concepto ha sido aprobado por los Presupuestos Generales del Estado para 2016.

C) Lan-baldintzak.

2008-2010 Udalhitz akordioaren bidez lan-baldintzetan aldaketak sartu dira, arlo hauetan: lanaldia, oporrak, lizentziak eta baimenak.

Hala ere , beste neurri osagarri batzuk ere badaude:

- Lizentziak heriotzagatik edo senideen gaixotasun larriagatik, lizentziak eginbehar saihestezinegatik (odol-emateak, bizi-testamentua) amatasuna eta edoskitzea...

D) Condiciones de Trabajo.

Se introduce una restitución a las condiciones de trabajo por el Acuerdo Udalhitz 2008-2010, en las siguientes materias: jornada de trabajo, vacaciones, licencias y permisos.

Así mismo otras medidas suplementarias :

-Licencias por fallecimiento o enfermedad grave de familiares, licencias por deberes inexcusables (donaciones de sangre, testamento vital), maternidad y lactancia...

Alkateak adierazi du idazkariak txosten ikusita Eudeli zenbait azalpen eskatu dizkiola eta oraindik ez diotela erantzun. Proposatu du hurrengo udalbatzan jorratzea gaia.

Udalbatzak proposamena onartu du.

LAUGARREN GAIA

2016ko EKAINAREN 26ko HAUTESKUNDE OROKORRETARAKO HAUTESKUNDE MAHAIAK KIDEAK IZENDATZEA.

2016ko Hauteskunde Orokorretarako Hauteskunde Mahaiak eratzeko zozketa egin ondoren, mahaikideak aukeratu dira, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

BOSGARREN GAIA

2017ko IRURAKO TOKIKO JAI EGUNA IZENDATZEA.

2016ko maiatzaren 13ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Eusko Jaurlaritzako 7/2016 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2017. urteko jaiegunen egutegia onartzen duena, eta 2.2 artikulua araberan, udalek proposatu behar dute tokiko jaieguna.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

1.- 2017. urteko Irura udalerriko tokiko jai eguna izatea irailaren 29a, San Migel eguna, alegia.

2.- Erabakia jakinaraztea Euskal Jaurlaritzako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

SEIGARREN GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN 1. ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTU BERRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2016ko urtarrilaren 26an Irurako Udalbatzak behin-behinean onartu zuen Irurako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 1.

Con fecha 26 de enero de 2016, se aprobó por el Pleno de este Ayuntamiento de Irura, la aprobación provisional de la 1ª Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Irura.

Aldaketa Zehatza.

Ondoren, indarreko hirigintza-legeidiarekin adostasunean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendu Batzordearen aginduzko txostena igorri zen, eta Batzordearen aldeko txostena jaso, 2016ko apirilaren 13ko erabakiz.

Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri zaio, maiatzaren 6an, behin betiko onar dezan.

Maiatzaren 19an Mugikortasun eta Lurralde Antolamendu Saileko zerbitzu teknikoek jakinarazi digute erabaki berria hartu behar dutela. Izan ere, bidalitako testua aldatu egin da, eta ez dator bat udalbatzak ontzat eman zuenarekin. Idazketa-taldeak egin ditu aldaketa horiek, Antolamendu Batzordearen erabakiari egokitzeko eta zenbait gauza argitu eta Foru Departamentu horretako zerbitzu teknikoek antzemandako zuzenketak egiteko.

Hori dela eta, Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua c) atalean eta lege horren 47.3 artikulua II) atalean ezarritakoaren arabera, Udalbatzak aho batez, hau da, Udaleko kide kopuru legalaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, honako hau

ERABAKI DU:

Gipuzkoako Foru Aldundiari bidalitako Irurako HAPOn 1.

Posteriormente, y de acuerdo con la legislación urbanística vigente se remitió a informe preceptivo de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, recibíendose informe favorable de la Comisión por acuerdo adoptado con fecha 13 de abril de 2016.

Así mismo y a continuación se remite con fecha 6 de mayo a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

Con fecha 19 de mayo se nos comunica por los servicios técnicos del Departamento de Movilidad y Ordenación Territorio de la necesidad de adoptar nuevo acuerdo en la medida de que el texto remitido se ha modificado respecto al aprobado por el Pleno del Ayuntamiento. Dichas modificaciones se han realizado por el equipo redactor para adaptarlo al acuerdo de la Comisión de Ordenación y realizar una serie de aclaraciones y rectificaciones detectados por los servicios técnicos de dicho Departamento Foral.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, que representan el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 22.2, apartado c) de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local y con lo dispuesto en el art.47.3, apartado II) de la citada Ley, lo siguiente

ACUERDO:

Aprobar el texto técnico del proyecto de 1ª. Modificación Puntual del

Aldaketa Zehatzeko proiektuaren PGOU de Irura y remitido a la Diputación
testu tekniko onartzea. Proiektu Foral de Gipuzkoa, que recoge las
horrek aipaturiko aldaketa teknikoak modificaciones técnicas señaladas.
biltzen ditu.

ZAZPIGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK ERREFUXIATU ETA ASILO ESKATZAILEEI BURUZ EGINDAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alde batetik, EH Bilduren Mozioa aurkeztu da:

«Nazioarteko erakundeek zabalduetako datuen arabera, munduan 60 milioitik gora pertsona desplazatuta bizi dira, gerrak, barne-gatazkak, eta, gero eta gehiago, klima-aldaketaren eraginek areagotutako pobrezia-egoerak direla-eta.

Nagusiki Siriako gerrak eragindako larrialdi-egoerari aurre egiteko, milaka eta milaka pertsona Europar Batasunera iritsi dira laguntza eske. Asko eta asko Mediterraneoan hil dira, Europaren atean, herriak batu beharrean, hobi komun erraldoi bihurtu den itsasoan, Europar Batasunak hegoaldeko ertzean bultzatutako politiken ondorioz neurri handi batean.

Europar Batasuna, eta estatu kideak bereziki, eskas ibili dira ez dutelako “bide segururik” ezarri, ezta pertsonak salbatzeko behar diren bitartekoak ere; gainera, asilo-eskatzaileak birkokatzeko kupoak ere ez dituzte bete, eta Turkiarekin akordio lotsagarri bat sinatu dute pertsonak itzultzeko. Giza Eskubideak bermatzeko gauza ez den Estatu bat ez da inoiz segurua izango gatazka-eremuetatik ihesi dabilen jendearentzat.

Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela pertsonen joan etorri askerako eskubidea berriz ere indarrean jartzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikuluan ezarritakoa betez. Eskubide humanitarioetan oinarritutako harrera-politikak abian jarri behar direla uste dugu, baita, oro har, gatazkak konpontzeko politikak sustatu behar direla ere, bitarteko baketsu eta demokratikoak erabiliz.

Horregatik, Udal honek honako hau erabaki du:

- Asilo-eskatzaileak ez itzultzeko eta ez kanporatzeko exijitzen du, eta Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa indargabetzeko eskatzen du, nazioartean asilo-alorrean indarrean dagoen legeriaren aurka doalako.

- Europar Batasunari eta Estatu espainolari estatu kideetan harrera-prozesua azkartzeko erreklamatzeko die, asilo-eskatzaileak hartzeko ezarritako kupoen arabera, eta Europar Batasunak eta estatu kideek pertsona horiek birkokatzeko ardura atzeratzen ari direla salatzen du.

- Udalerri honek dagozkion errefuxiatu eta asilo-eskatzailleak lehenbailehen hartzeko prest dagoela adierazten du, eta erakunde arteko akordio bat egiteko deia egiten du, pertsona horien eskura bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren bitartekoak jarriko dituen akordioa.

- Maiatzaren 9an Europako Eguna ospatuko da, eta udal honek parte hartuko du EBri asilo-politika humanitarioagoa eskatzeko abian jartzen diren ekimen guztietan.»

Beste aldetik EAJ/ PNVk haren Mozioa aurkeztu du:

«MOZIOA – EUROPA – ERREFUXIATUAK – SIRIA - TURKIA

Iheslariak bizi duten bidegabekeriak harridura, mina eta inpotentzia eragiten digu. Egoera horrek gure sinesmen etiko eta demokratiko sakonenak erasaten ditu. Europako proiektuari zentzua ematen dion humanismoaren muin berean sentitzen dugu.

Hau ez da «iheslarien krisialdi» hutsa, iheslariak jasaten duten egoera bidegabea baizik. Eta egoera bidegabe horixe da Europa astintzen duen krisialdiaren adierazlerik argiena. Europar Batasunaren eta europar Estatuko gobernuen balio-krisialdi sakona ere bada, balio instrumentalak pertsonen balioaren aurretik jarri baitituzte.

Euskal hiritarrek hasiera-hasieratik Europarekiko bokazio eta konpromiso garbiak izan ditu. Europako proiektuaren gainbehera irudikatzen duen krisialdi humanitario honetan, gure ahots kritikoa entzunarazteko beharra sentitzen dugu.

Europako proiektuaren identitatea, bideragarritasuna eta iraunkortasuna eratu zituzten jatorrizko balioak berreskuratzea da gure nahia. Sorrerako balio horiek, espiritu humanista eta Europako proiektuaren muinean kokatutako pertsonak dira, hain justu, egungo duineztasunari, lotsari eta elkartasun ezari aurre egiteko gure tresnak.

Berreskura ditzagun balio etikoak, politikoki integratutako Europaren proiektuaren zutoin ziren balio haiek. Har dezagun iheslarien krisiari erantzun azkarra, eraginkorra eta gizatiarra emateko konpromisoa.

Krisialdi honi ematen dion erantzunaren araberakoa izango da Europaren proiektu komuna etorkizunean. Pertsona jardunaren muinean kokatzen duten printzipioetan eta balioetan oinarritutako proiektu gisa, Europak duen ahalmena iheslariak jasaten duten bidegabekeriari irtenbide bat aurkitzeko gaitasunaren irudia izango da.

Ondorioz, Irurako Udal Batzak zera adierazten du:

Europar Batasunak eta Estatu kideek joan den martxoaren 18an Turkiarekin lortutako akordioan azaldu duten adore eta konpromiso eza jarrera salatzen du, izan ere arrisku larrian jartzen baitu Europaren identitatea. Europak dituen balioen mailari eutsi beharko lioke.

Europak eta bere herrialdeek errefuxiatu krisi honen aurrean irmoki elkartasuna, ardura eta legezketasun konpromisoak berretsi behar ditu. Elkartasun-konpromisoa esan nahi du gerra batetik ihesi, muturreko sufrimendu-, behar- eta larrialdi-egoeran daudenei premia eta atzerapenik gabe laguntza emateko behar humano eta humanitarioa eskaini behar diegula. Ardura-konpromisoa suposatzen du Europaren funtsa pertsonen, pertsona guztien, giza eskubideak eta duintasuna defendatzeko ardura onartu behar duela. Ardura horrek dakarren konpromiso instituzionala, politikoa eta soziala onartzea. Eta legezketasun-konpromisoa esan nahi du Europak nazioarteko zuzenbidea bete beharra dauka. 1951ko Genevako Konbentzioa, Giza Eskubideen Adierazpenaren 14. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 18. artikulua Europak nahitaez bete beharreko arauak dira.

Europar Batasunari zein Estatu kidei exijitzen die irtenbide humanitario azkar bat eman dezatela errefuxiatuak bizi duten egoera larriari era egokian erantzunez. Zentzu honetan, berretsi nahi du Euskal Erakundeek beraiei dagokien ardura hartzeko prest daudela.

Europar batasunari eta Estatu kideei eskatzen diegu pasabide humanitarioak sortzeko agindu dezaten, eta pertsonen eta nazioarteko zein europar legediari errespetuan oinarrituz, pertsona horiei Europar Batasuneko 28 Estatu kideen artean behar bezalako ongietorria eta asiloa eman diezaieten.»

Alkateak azaldu du Iruran 15 egunez kanpaina egin dela, herritarren artean janaria eta beste hainbat premiazko gauza jasotzeko errefuxiatuentzat, eta Intxaurrendoko elkarte bati bideratu zaiola, hark zuzenean garraia dezan errefuxiatuen kanpamentuei. Proposatu du bi mozioak onartzea, eta EH Bilduko taldea ados dagoela adierazi du.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du bi mozioak onartzea.

ZORTZIGARREN GAIA

IRURAKO UDALAK «ZURRUMURRURIK EZ» SAREAREKIN BAT EGITEKO AGIRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Adierazpen hau aurkeztu da:

Euskal Herriko hainbat gizarte eta erakunde- Desde el año 2011 diversas iniciativas ekimenek jarduerak eta programak garatzen sociales e institucionales vascas venimos jardun dugu 2011. urtetik **Zurumurrurik EZ** desarrollando actividades y programas en

/ **antiRUMORES** deritzon sentsibilizazio sozialerako strategiaren barruan.

Zurumurrurik EZ terminoak, Bartzelonako Udalak 2010ean sorturiko marka BCN antiRUMORES, du oinarri eta haren finkapen eta hedapen prozesuan garaturiko metodologietan (estatuko eta Europako lurralde askotara zabaldu direnetan) oinarritzen da.

Gizarte-eraldaketarako estrategia da, giza eskubideen eta kulturartekotasunaren aldeko eta arrazismoaren kontrako ikuspegitik. Etorkinen eta kultura-aniztasunaren inguruko oinarri gabeko zurumurrurak, estereotipo negatiboak eta aurreiritziak izatea eta zabaltzea oztopo dira pertsonen arteko harremanetarako, intolerantziaren aldeko diskurtsoa elikatzen dute, eta gerora, berdintasunik eza, gizarte-zatiketa eta diskriminaziorako haztegi bilakatzen dira. Beharrezkoa da pertsonen eta taldeen ideia, ulertzeko modu, estereotipo eta kontzeptuetan eragitea geure gizarte, norbanako eta talde mailako jardunbideetan jarrera-aldaketa eragiteko.

Estrategia honen ezaugarri dira erakunde publikoen, gizarte-erakundeen eta modu pertsonalean parte hartzen duten pertsonen bultzada komuna eta politika publikoen eta herri-mugimenduan ekintzen osagaiak uztartzea.

Zurumurrurik EZ strategiak lotura estua dauka genero-ikuspuntu, gizarte-inklusio, funtzio-aniztasun, erlijio-aniztasun, sexu-orientazio, belaunaldien arteko orientazioarekin eta abarrekin. Izan ere, horietan guztietan dauden estereotipo negatiboek, aurreiritziek eta zurumurrurak faltsuek ondorio negatiboak eragiten dituzte kohesio sozialari dagokionez.

línea con la estrategia de sensibilización social denominada **Zurumurrurik EZ / anti RUMORES**.

El término antiRUMORES, o su versión en euskera Zurumurrurik EZ, se basa en la marca acuñada por el Ayuntamiento de Barcelona en el año 2010. BCN antiRUMORES, y se apoya en las metodologías desarrolladas en su proceso de consolidación y expansión (las cuales han trascendido a multitud de territorios estatales y europeos).

Se trata de una estrategia de transformación social desde la perspectiva de los derechos humanos, la interculturalidad y el antirracismo. La existencia y propagación de rumores infundados, estereotipos negativos y prejuicios sobre las personas inmigrantes y la diversidad cultural, representa un obstáculo para la relación entre las personas, alimenta el discurso de la intolerancia y a la larga constituye un perfecto caldo de cultivo para la desigualdad, la fragmentación social y la discriminación. Es preciso influir sobre las ideas, percepciones, estereotipos, conceptos de las personas y de los grupos para provocar un cambio de actitudes en nuestras prácticas sociales, individuales y colectivas.

Una señal de identidad muy significativa en esta estrategia reside en el impulso compartido de instituciones públicas, organizaciones sociales y personas a título individual, y en la combinación de elementos fundamentales de las políticas públicas y la acción de los movimientos ciudadanos.

La estrategia antiRUMORES está en estrecha relación con las perspectivas de género, inclusión social, diversidad funcional, diversidad religiosa, orientación sexual, generacional ...en las que la existencia de estereotipos negativos, prejuicios y falsos rumores provoca igualmente consecuencias negativas para la cohesión social.

Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean Aurre egin zurrumurruari ekimena abian jarri zuenetik, lantaldea modu jarraituan eta aldian-aldian mantendu da, eta, horri esker, lurraldean eginiko zurrumurruen aurkako ekimen asko elkarrekin lotu ahal izan dira. Horrez gain, estatuko eta nazioarteko antzeko ekimenen arteko loturak eta lan-eremuak ezarri dira, laguntza handia izan dutenak, hala nola, Europako Kontseiluarena eta Integrazioarako Europako Funtsarena.

Horiek horrela,

*Sinestuta beharrezkoa dela elkarlanerako gune hau sendotzea sinergiak sortzeko.

*Ustetan garaia dela euskal estrategia desberdinak bateratuko dituen izendapen komun bat sortzeko.

*Parte-hartzaile bakoitzaren autonomia era erabiltzen dituen lan metodologia eta tresnak errespetatuz.

Gizarte erakunde eta instituzio publiko sinatzaileek erabaki dute **Zurrumurrutik EZ / Red Vasca Antirumores** sarea eratzea, hurrengo helburuekin:

1.- Zurrumurruen aurkako estrategian, praktika egokien jakintza eta azterketarako gunea izatea, diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentzio eta lanarekin batera.

2.- Elkarlanean edo koordinaturik lan esperientziak garatu, arreta berrezia jarrita formakuntza prozesuen diseinuari, ezagutzarako dokumentazio eta materialen sorkuntzari, eta zurrumurruen aurkako ekintzen katalogo bat garatzeari, zein sareko kideen artean partekatu ahal izango den eta interesgarritzat jo dezaketen erakunde eta

Desde que el Gobierno Vasco iniciara la acción *Frena el Rumor* en el año 2011, de manera constante y periódica se ha mantenido un grupo de trabajo que ha permitido interconectar un buen número de iniciativas antiRUMORES que se han desarrollado en nuestro territorio. También se han establecido conexiones y espacios de trabajo con iniciativas similares en el ámbito estatal e internacional, que han contado con apoyos tan significativos como el del Consejo de Europa y el Fondo Europeo de Integración.

Por ello,

*En la convicción de que es preciso consolidar y fortalecer este espacio colaborativo para generar sinergias.

*Considerando que es tiempo de avanzar en la construcción de una identidad común denominadora de las diversas estrategias vascas,

*Desde el respeto a la autonomía de cada participante y al desarrollo de las metodologías de trabajo y las herramientas que consideran más adecuadas en sus respectivos territorios.

Las organizaciones sociales e institucionales públicas firmantes acuerdan constituir **Zurrumurrutik EZ / Red vasca Antirumores** con los siguientes objetivos iniciales:

1.- Ser un espacio para el conocimiento y análisis de buenas prácticas en relación con la estrategia antirumores, y por extensión con la prevención y lucha contra la discriminación y la xenofobia.

2.- Generar experiencias de trabajo conjuntas y/o coordinadas (con especial atención al diseño de procesos formativos, elaboración de documentación y materiales para el conocimiento, y el desarrollo de un catálogo de acciones antirumores que pueda ser compartido en el ámbito de la red y ofrecido a cuantas entidades o instituciones pudieran

instituzioei eskainiko zaien.

estar interesadas).

3.- Kanal bat sustatu, Euskadin sorturiko zurrumurruen aurkako esperientzien berri emateko eta haien gizarte eragina biderkatzeko.

3.- Propiciar un canal para la difusión y multiplicación del impacto social de las experiencias antirumores generadas en Euskadi.

4.- Gizarte eta instituzio eragile berriak sarera gehitu eta haiekin esperientziak eta helburuak partekatu.

4.- Incorporar a nuevos agentes sociales e institucionales con los que compartir experiencias y objetivos.

Lankidetzarako gune formalki antolaturiko baten beharra adostez gain, eta sarearen hirugarren helburuarekin bat, web orri bat martxan jarri da www.zurrumurrurikez.eus eta www.antirumores.eus domeinuekin.

Además de consensuar la necesidad de un espacio colaborativo formalmente organizado, y en línea con el tercer objetivo de la red, se ha puesto en marcha una página web con los dominios www.zurrumurrurikez.eus y www.antirumores.eus.

Ondoren aipatzen diren erakunde eta instituzioek agiri hau sinatzen dute **Zurrumurrurik EZ / Red vasca Antirumores** sarearen sortze gutun gisa eta bertan aipatu helburuen alde.”

Las entidades e instituciones abajo firmantes, suscriben este documento en calidad de carta constitutiva de **Zurrumurrurik EZ / Red vasca Antirumores** para dar cumplimiento a los objetivos señalados.”

Hori ikusita, udalbatzak aho batez onartu du.

BEDERATZIGARREN GAIA

GALDE-ESKEAK.- Gai hau jorratu dute:

A) Parkeak estaltzeari buruz, herritar batek adierazi du parke bat estali behar bada goiko parkea estali beharko dela.

Alkateak erantzun dio agian hobea izango zela bi parkeak estaltzea.

Beste herritar batek adierazi du, beheko parkean egon ohi den haizea ikusita, estaltzen bada, parkearekin akabatuko dutela, eguzkia desagertuko baita eta jendea azkar joango baita etxera.

Alkateak ihardetsi dio kontuan hartuko dutela.

Ainhoa Ugalde zinegotziak alkateari galdetu ea kontuan hartuko duten edo erabakia hartuta dagoen, eta hirurehun sinadura nahikoa ez den haiantzat.

Alkateak erantzun dio bat bakarra estali behar den ala ezin diren biak estali.

Ainhoa Ugaldek ihardetsi dio EAJk haren programan jarri zuela beheko parkea estali zuela, baina ez ote jendearen beharrak eta eskaerak kontuan hartu behar.

Alkateak itaundu dio noiz sortu den behar hori.

Ainhoa Ugalde erantzun dio gauza bat dela parke bat estaltzea, eta agian ideia ona izan daitekeela. Beste gauza da beheko parke estali behar izatea nahitaez. Joan den legegaldian sinadurak biltzea oso garrantzitsua zen EAJrentzat, baina badirudi orain ez duela garrantzirik.

Olaia Nieto zinegotziak alkateari itaundu dio beheko parkeko auzokideekin bildu diren.

Alkateak erantzun dio batzuekin bildu direla.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du oso komenigarria dela bilera orokorra egitea auzokideekin, eta, orokorrean, herritarrak ez direla hainbat arrazoirengatik udalbatzetara etortzen.

Ainhoa Ugalde zinegotziak alkateari galdetu dio zenbat sinadura behar dituzten jaramon egiteko.

Alkateak ihardetsi dio sinatu duen pertsona batek esan diola ados zegoela goiko parkea estaltzearekin, baina horrek ez duela esan nahi beheko parkea estali behar ez denik.

Jesus Alonso zinegotziak galdetu du zein den arazoa. Hasteko, udal-gobernuaren proposamena aurkeztu da. Egitarauan bazegoen, eta beheko plazaren parkea estaltzea zen. Ondoren, sinadurak jaso dira, goiko plaza estaltzeko. Haren taldea ados dago, baina ikastolako lokalak libratzeko itxaronda, eta ez du hauteskundeetan aurkeztutako proposamenarena urka joateko beharrik ikusten.

Bizilagun batek erantzun dio ez dela kontra egitea, eta adierazi du kontua dela goiko parkea gehiago erabiliko dela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du jendeari ideia bururatu zaiola jakin duenean laurogeita hamar mila euro gastatuko direla beheko parkea estaltzeko, eta galdetu du diru horrekin zergatik ez den goiko parkea estaltzen, jende gehiagok erabiltzen baitu. Irudipena dauka EAJk kontua Bilduren estrategia balitz hartu duela, baina ez da hala. Jendeak eskatzen duena baino ez da.

Alkateak adierazi du beheko parkean egona dela, eta beroa egiten duenean, jasanezina dela. Haren burutapena da estalkia euria egiten denean erabiltzea, eta, baita eguzkia dagoenean ere, beroa jasateko.

Ainhoa Ugalde zinegotziak itaundu dio zenbat egunetan egiten duen bero eta zenbatean euria, eta adierazi du goiko parkean ere beroa egiten duela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du beheko parkea gutxi erabiltzen dela, eta parke bat estaliz gero, hobe dela Laskibar Parkea estaltzea, jende gehiagok erabiltzen duelako. Esan du goiko parkea ez dela egin nahi Bilduren aukeratzat ikusten delako.

Alkateak erantzun dio inoiz ez duela esan goiko parkea ez dutela estaliko, eta aztertuko dutela berriro, eta hurrengo udalbatzan erantzungo dietela.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:20ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA